

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERNEDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onespena ematea etxeak edateko urez hornitzeagatik eta saneamenduagatik ordaindu beharreko tasa eta tarifak arautzen dituen zerga ordenantza aldatzeari

Kontzeju honek, 2019ko irailaren 3ko bilkuran, hasierako onespena eman zion etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasak eta tarifak arautzen dituen zerga ordenantza aldatzeari; espediente hori jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartuta geratzen da. Horregatik, aldaketa oso-osorik argitaratzen da, indarrean jar dadin, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Tarifei dagokien ordenantza atala aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

Urtean behin kobratuko da tarifa. Hona xehetasunak:

Edateko uraren hornidura.

Kuota finkoa:

Etxeko erabilera: 40,00 euro/kontagailu/urte.

Industriako erabilera: 60,00 euro/kontagailu/urte.

Kuota aldakorra.

Etxeko erabilera:

100 metro kubo baino gutxiago: 0,22 euro / metro kubo.

100 metro kubo eta 300 metro kubo artean: 0,26 euro / metro kubo.

300 metro kubo baino gehiago: 0,30 euro / metro kubo.

Industriako erabilera:

1.000 metro kubo arte: 0,35 euro / metro kubo.

1.000 metro kubo eta 6.500 metro kubo artean: 0,46 euro / metro kubo.

6.500 metro kubo baino gehiago: 0,77 euro / metro kubo.

Hartune tasa: 150 euro.

Hondakin uren saneamendua.

Kuota finkoa:

Etxeko erabilera: 30,00 euro/kontagailu/urte.

Industriako erabilera: 40,00 euro/kontagailu/urte.

Kuota aldakorra.

Etxeko erabilera:

100 metro kubo baino gutxiago: 0,15 euro / metro kubo.

100 metro kubo eta 300 metro kubo artean: 0,16 euro / metro kubo.

300 metro kubo baino gehiago: 0,17 euro / metro kubo.

Industriako erabilera:

1.000 metro kubo arte: 0,25 euro / metro kubo.

1.000 metro kubo eta 6.500 metro kubo artean: 0,35 euro / metro kubo.

6.500 metro kubo baino gehiago: 0,45 euro / metro kubo.

Edateko uraren eta saneamenduaren hornidura zerbitzuak emateko behar den azpiegituran konponketa garrantzitsuak, etorkizuneko ordezkapenak, hobekuntzak eta abar eginez gero, kontzejuari egotz dakioken kopurua, dirulaguntza posibleak eta kobratutako tasekin metatutako gerakinak kendu ondoren, kobratu dakiekeen kontagailuei jasanaraziko zaie proportzionalki, kontzejuaren erabakiaren arabera.

Ordenantza honen aldaketa ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du aldatzea erabakitzen den arte.

Bernedo, 2019ko urriaren 28a

Lehendakaria

EMMA ELORRIETA PÉREZ